



## MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI BURUZKO ABISUA 5517/2022 Zkia

Sortutako data eta ordu lokala: 2022/11/21, 10:30.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2022/11/21, 19:30  
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

### ◆ Zergatia:

Itsasaldeko Arriskua: Nabigazioa lehenengo bi milietan  
Prezipitazio iraunkorra  
Haizea: haizeguneetan  
Itsasaldeko Arriskua: Zipriztinak  
Itsasaldeko Arriskua: Kostaldean inpaktua

### ◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Astelehena, hilak 21:

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.

Olatuaren altuera adierazgarria 3.5 m inguruan kokatuko da, 5 metrora igoz. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 12-13 s. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, 6ko indarrarekin 7ko tarteekin. Itsaso zakarra izango da, itsaso oso zakarreko guneekin.

- Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 12etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 21, 12etatik astearte, hilak 22, 06etara bitartean Gipuzkoako zenbait lekutan 50-60 l/m<sup>2</sup> baino gehiago pila daitezke, bereziki ekialdean. Euri ertaina egingo du, sarri eta ugari Kantauri isurialdean non euria iraunkorra izango den, bereziki ekialdean. Arratsalde-gauean trumoi-ekaitzak izan daitezke, txingorra bota dezake, eta zaparradak zenbait lekutan handiak izan daitezke.

- Abisu Horia haizeagatik Kantauri isurialdeko haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala.

Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea boladak 100 km/h ingurukoak izan daitezke Kantauri isurialdeko haizeguneetan, bereziki mendebaldeko kostaldean. Bestalde, itsasertzetik gertu dauden gainerako tokietan haize-boladak 60-80 km/h ingurukoak izan daitezke.

Astearte, hilak 22:

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala.

Olatuaren altuera adierazgarriak 5-5.5 m-ak gaudituko ditu. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3.5-4.5 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 13-14 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da, 5-6ko indarrarekin eta 7ko tarteekin goizaldean; egunaren erdialdeko orduetan baretu egingo da, 4ko indarrarekin. Itsaski handia edo itsaso zakarra eragingo du, itsaso oso zakarreko guneekin goizaldean; eguerdi inguruan baretu eta itsaskia izango da.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala.



Olatuaren altuera adierazgarria 4-5 m inguruan egongo da. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3.5-4.5 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 13-14 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da, 4ko indarrarekin. Arratsalde-gauean hego-mendebaldera egingo du, 4ko indarrarekin. Itsaskia izango da eta gauean itsaso kizkurra.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 00etatik 17etara ordu lokala.

Olatuen ezaugarriak eta mendebal-osagaiko haize zakarraren ondorioz pasealeku eta malekoietan zipiztin eta olatu-zaparrak erori daitezke, bereziki itsasgoren inguruan. Olatuen altuera adierazgarriak 5-5,5 m-ak gaudituko ditu. Eguneko lehenengo itsasgora 03:00etan (ordu lokala) 4.38 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 4.23 m + meteorologikoa: 0.15 m). Gainezka egiteko indizeak:  $I=6.0$  m eta  $I_{max}=6.5$  m. Olatuen arteko periodoa: 13 s. Bigarren itsasgora 15:16an (ordu lokala) 4.49 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 4.34 m + meteorologikoa: 0.15 m). Gainezka egiteko indizeak:  $I=6$  m eta  $I_{max}=6.4$  m. Olatuen arteko periodoa: 14 s.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Kostaldean inpaktua** 13etatik 17etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4-5 m ingurukoa izango da. Itsasgora 15:16an (ordu lokala) 4.49 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 4.34 m + meteorologikoa: 0.15 m). Gainezka egiteko indizeak:  $I=6$  m eta  $I_{max}=6.4$  m. Olatuen arteko periodoa: 14 s.

- Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 00etatik 06etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 21, 12etatik asteartea, hilak 22, 06etara bitartean Gipuzkoako zenbait lekutan 50-60 l/m<sup>2</sup> baino gehiago pila daitezke, bereziki ekialdean. Goizaldean euria bereziki kostaldean egingo du, bereziki Gipuzkoako kostaldean non 10-15 l/m<sup>2</sup> pilatu daitezkeen.

- Abisu Horia haizeagatik Kantauri isurialdeko haizeguneetan 00etatik 06etara ordu lokala.

Mendebal-osagaiko haizea boladak 100 km/h ingurukoak izan daitezke Kantauri isurialdeko haizeguneetan, bereziki mendebaldeko kostaldean. Bestalde, itsasertzetik gertu dauden gainerako tokietan haize-boladak 60-80 km/h ingurukoak izan daitezke.

Asteazkena, hilak 23:

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 18etara ordu lokala.

Olatuaren altuera adierazgarria 4 m ingurukoa izango da goizaldean, goizean txikitu egingo da eguerditik aurrera 3.5 m baino txikiagoa izango da. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 13-14 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da, 4ko indarrarekin. Arratsalde-gauean hego-mendebaldera egingo du, 4ko indarrarekin. Goizean itsaskia eragingo du. Itsaskia izango da eta gauean itsaso kizkurra.

#### ◆ Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:

Sigue la información en Twitter- Informazioa Twitter-en jarraitu.

@112\_SOSDeiak @Euskalmet